


БЕНЕТАКО UKRAINIARRA ОТЕ НАИЗ?

Liubov Burianska



GIZA LIBURUTEGIAK 2019

GIZA LIBURUTEGIAK 2019

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

Liubov Burianska eskertu nahi dugu Elkarrekin Kooperatiba Txiki elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Benetako ukrainiarra ote naiz?

Luba ukrainarra da, herrialdearen erdialdekoa. Orain lau urte etorri zen Donostiara bizitzera. “Ukrainarra al naiz benetan?” izeneko liburua ekarri digu: liburu horretan kontatzen da zer-nolako gatazka identitario eta kulturala bizi izan zuen Lubak, jaioterria utzi eta beste nonbait bizitzen hasi zenean.

Luba Ukrainan jaio zen, 1984an: aita errusiarra zuen eta ama, berriz, ukrainarra. Haurra zela, hasieran, errusiar eskola, hizkuntza eta kultura jaso zituen, izan ere, Ukraina SESBen parte baitzen. Baina, handik urte gutxira, Ukrainak independentzia berreskuratu zuen, eta hezkuntza-sistema errotik aldatu zen. Hala, bertako kultura eta hizkuntza ezagutzen hasi zen, eta horiekiko lotura handia sortu zitzaion.

Ikasketekin jarraitu eta lanean hasi zen, betiere kulturarekin loturiko lanetan, hain justu ere, antzerki-zuzendari moduan.

Ondoren, gizon ukrainar batekin ezkondu zen, eta Kievera joan ziren bizitzera, hiriburura. Handik tarte batera, hiriko zurrumbiloa atzean utzi nahian, herri txikiago batera joan ziren, eta han jaio ziren bien semea Lubomir eta alaba Anastasia.

Luba oso abertzale sentitzen zen, baina, gaur egun, argi dauka abertzaletasun hori ikasi egin zuela, ez aukeratu. Ukrainako egoera ekonomikoa oso txarra zen eta, gainera, Lubaren ama Espainian zegoen, eta alabari gomendatzen zion berak ere alde egiteko; nolahi ere, Luba oso abertzalea zenez, ez zuen herrialdea utzi nahi. Ukrainan geratu nahi zuenez, aukera guztiak probatu zituen, eta askotariko lanak hartu; baina, gero, Errusiarekiko gatazka hasi zenean, ikusi zuen herrialdea salbuespen-egoeran zegoela, gerran kasik, eta, beraz, Ukrainatik alde egiteko aukera aipatu zion senarrari. Senarra

ados agertu zen eta Euskal Herrira joatea erabaki zuten, "probatze aldera"; gaizki joanez gero, beti izango zuten itzultzeko aukera.

Orduan, Luba Euskal Herria abiatu zen seme-alabekin batera, eta senarra Ukrainan geratu zen, etxea saltzeko eta bestelako kontu batzuk konpontzeko. Horiek amaitu ostean elkartuko zen familia osoa.

Lubak dioenez, lehen hilabeteak oso gogorak izan ziren, hainbat arrazoi tarteko: ez zuelako hizkuntza ezagutzen, senarra urrun zegoela (azkenean, hura ez zen sekula etorri Euskal Herrira, eta gaur egun ez dira senar-emazte), haurrak gaixotu zirelako, amarekin eta izebarekin batera bizi behar zuelako, autonomia galdu zuelako...

Handik sei hilabetera, ordea, hizkuntza ikasten hasi zen; hasieran, oso zaila suertatu zitzaion, baina berehala hasi zen nola-hala moldatzen, eta, sei hilabete beranduago, bere ahizpen laguntzaz, seme-alabekin bizitzeko apartamentu bat lortu zuen.

Gauzek martxa hartuta eta oinarrizko beharrak aseta, bere barnealdea lantzeko unea iritsi zela erabaki zuen Lubak. Ez zuen biktimaren rola hartu nahi, gauzak erabaki nahi zituen eta konponbideak bere kabuz bilatzeari ekin zion. Hala, bere buruari esan zion bera zela bere bizitzaren arduraduna, berak konponduko zuela, eta etorriko zitzaion guztia opari moduan hartuko zuela.

Jende guztiak dio euskaldunak oso itxiak direla, baina, berari kontrakoa gertatu zitzaion: eskolan, jendea ezagutzen hasi zen, jende guztiz atsegina eta irekia.


Gainera, jende horri esker, Euskal Herriko errealitate politikoa ezagutu zuen, bai eta identitateari lotutako gatazka ere, eta berak Ukrainan bizi izandako egoera ekarri zion gogora. Hemen, jendeak errusiarra dela pentsatzen du sarritan; Luba, berriz, ukrainar

sentitzen bada ere, talde handiago baten parte sentitzen da: eslaviar. Izan ere, jaioterria utzi duenez, iruditzen zaio ezin dituela abertzale-plentak egin.

Lubak kantu eta ipuinen bidez transmititzen die kultura ukrainarra seme-alabei, berak maitasun handiz jaso baitzituen. Bestalde, errusiarrez mintzaten zaie haurrei, erremintak izan ditzaten eta nondik datozen jakin dezaten. Hala ere, iruditzen zaio semeak eta alabak eurek aukeratu beharko dutela beren identitatea, eta, batez ere, zorientasuna.

Gaur egun, bikotekidea dauka, Bilbokoa. Haren aita Madrilekoa da, baina badaki euskaraz. Bien historiak antzekoak dira eta Luba eta haren seme-alabak euskara ikasten ari dira. Orain, familia berri bat osatuko duten honetan, zera galdetzen dio bere buruari: Nor naiz benetan? Nongoa naiz? Eta aske sentitzen da, aukeratzeko aske.

GIZA LIBURUTEGIAK
2019
BIBLIOTECAS HUMANAS



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural